

Era telematikoan aritzeko, programak bere **hezkuntza material guztia aldatu** du, eta Koronabirusaren krisiari lotutako gaiekin eguneratu du

Online bertsioan oso harrera ona izan du Kutxabanken ‘Bizitzarako Finantzak’ programak

- **Irakasleek oso balorazio positiboa eman diote urruneko hezkuntza-baliabide berri honi, ekonomiaren eta finantzen gainean ikasleek duten ezagutza hobetzeko sortua**
- **Ikasketa programa hau 2.500 eskolarteko ikasleek gaztek amaituko dute aurten, aurreko ikasturteetan baino gehiagok**

2020ko maiatzaren 7an. Kutxabanken ‘Bizitzarako Finantzak’ programak parte hartzen duten ikastetxeen aldetik oso harrera ona izan du online bertsio berrian, aparteko egoera honetan urruneko ikasketarako baliabide hau eskura izatea aukera bikaina dela iritzi baitiote.

Honela, Kutxabanken aurreikuspenen arabera, aurrez-aurreko bertsioan izena emanda zeuden ia **ikastetxe guztiek** amaituko dute formatu digitaleko ikasturtea. Beraz, ‘Bizitzarako Finantzak’ programaren bostgarren edizio honetan **2.500 gazte** inguruk parte hartuko dute guztira, aurreko urteetan izan duen harrera bikainaren antzeko.

Alarma egoerak urrunetik zuzendutako eta gidatutako ikasketa-baliabide bilakatu du ‘Bizitzarako Finantzak’. **Irakasleen lana ahalik eta gehien errazteko** irizpideari eutsi dio, eta jolasaren bertsio telematikoan aldaketak egin ditu, Koronabirusak sortutako egoera honek sortu dituen **aldaketa ekonomiko-finantzarioak** aintzat izanik.

Programaren idazkaritza teknikoak irakasleekin hartu-eman telematikoan izaten jarraitzen du, eta programari ahalik eta etekin handiena ateratzeko eta simulazioko-jokoaren eskaintza guztiak erabili ahal izateko informazioa ematen jarraitzen du.

Urruneko bertsio honek ezarri duen aldaketa nagusia programaren amaierako faseari eragiten dio. Izan ere, orain arte **Kutxabankeko adituak** (gehienak bulegoetako zuzendari gazteak) joaten ziren amaierako jardunaldira, zalantzak argitu, arazo bakoitzari eman beharreko erantzunak proposatu eta ekimenaren helburuak bete diren ala ez baloratzeko. Aitzitik, bertsio telematikoan, amaierako jardunaldi hau bideo-elkarrizketaz egingo da. Bertan, jokoan sortu diren zalantzei erantzungo die Kutxabankeko profesionalak.

Gazteek finantza-arloko oinarriko kontzeptuak uler ditzatela du helburu 'Bizitzarako Finantzak' programak, horrela, helduarorako ibilbidean ezinbesteko izango zaizkien zenbait gaitasun eta ezagutza hartuko dituzte. Horregatik, tresna bereziki eraginkorra da DBHko 4. mailako ikasgeletan, Ekonomia eta Ekintzaile Jarduerarako Ekimena ikasgaietarako. Beste ikastetxe batzuek zeharka erabiltzen dute 'Bizitzarako Finantzak' programa ikasgai batean baino gehiagotan, esaterako, Matematika, Gizarte Zientziak, Ekonomia, Informatika edo Teknologia.

'Bizitzarako Finantzak' simulazio-joko zuzendua eta partehartzailea da, ikasleei eta irakasleei finantza-trebetasunak lantzea errazten diena eta hezkuntza-gaitasunak lantzeko balio du. Orain arte egin dituen bost edizioetan, ikastetxe publiko eta hitzartuetako **8.900 ikaslek** baino gehiagok parte hartu dute.

'Bizitzarako Finantzak' partaidetzazko simulazio joko zuzendua da, ikasleek finantza ezagutzak landu eta sakondu ditzaten. Partaideek pertsonaia bat hautatzen dute (langabea, ikaslea, enpresario txikia, merkataria, etab.), helburu jakin bat duen txartela eta helburu hori lortzeko epe zehatz bat. Baldintza hauek ezagutzean, , hilerio izan ohi duten diru sarrera eta gastuen zerrenda egin beharko dute, aldagai guztiak aintzat izanik (sarrerak, ezinbesteko gastu finkoak, beharrezko gastu finkoak eta azaleko gastuak) daukaten helburua lortu ahal izateko.

Irakasleek programak berak emandako material guztia dute, ikasleek online jaso dezaten, eta jarraipena egiteko ere babes tekniko osoa jasotzen dute. Jokoak irauten duen bitartean, ikasleek baldintza desberdinen arabera txartelak ipintzen dituzte (positiboak edo negatiboak), hauek hasierako planak baldintzatzen dituzte, eta hilabeteko aurrekontua aldatzera behartzen dituzte ikasleak. Jokoa aurkezpen-jardunaldiarekin amaitzen da, Bankuko adituen partaidetzarekin.